

ARTURO GABIOLA URRUTIKOETXEA, MUNITIBARKO UDALEKO IDAZKARIAK,

E G I A Z T A T Z E N D U T:

Udal Batzar Osoak, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamalauan egindako Ohiko Bilkuran, beste batzuen artean, ondoko erabaki hau hartu zuela:

“A.- 2018. URTERAKO ORDENANTZEN FISKALEN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

2018. urterako ordenantza fiskaleko aldatetaren espedientea jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro ondoren, erreklamaziorik aurkeztu barik, espedientea hona bueltatzen da.

2017ko urriaren hamaikako Udalbatzak, ingurumeneko udalerrietan postuak jartzeagatik kobratzen duten tasa ikusita, eta Krisi Ekonomikoa dela eta, ondorengo ordenantza aldatzea erabaki zuen:

- **Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren D) EPIIGRAFEA: FERIA ETA HERRI JAIETAKO POSTUAK.** arautzen duena (gure herria erakargarriagoa izateko).

Udalbatzak, aho-batez, (udalbatzar-kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa suposatzen duelarik), ondorengo erabakitzen du:

Lehena. 2018. urterako onartzea, behin-betikoz, Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren D) epigrafea aldatzea, metro karratu edo zatiko eta hilabete edo zatiko tasa hiru eurotatik 0,10 eurotara jaitsiz.

Bigarrena. 2009ko urtarrilaren 1tetik Udal hau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartua dela eta, 2017.urterako Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako ur horniduraren eta saneamenduaren gaineko tarifak eta araudiak bereganatzea.

Hirugarrena. Krisi ekonomikoagatik, gainontzeko ordenantza fiskaletan arautzen diren zergen eta tasen tarifak ez igotzea, 2018. urterako.

Laugarrena. Aldaketaren testu osoa "Bizkaiko Egunkari Ofizialean" argitaratuko da. Aldaketa hau indarrean sartuko da, 2018ko urtarrilaren batean, edo apirilaren 2ko 7/85 Legearen, abenduaren 16ko 57/03 Legeak emandako idazketaren, 49, 65.2 eta 70.2 artikuluetan adierazitakoa bete ondoren, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean iraungo du indarrean.”

ROFRJeko 206. artikuluan xedatutakoarekin batera jakinarazten da akordu honen zertifikazioa akordua agertzen den aktaren onarpena egin baino lehen luzatzen dela.

Eta hala ager dadin eta egoki diren ondorioak izan ditzan, egiaztapen hau egiten dut, Alkate Lehendakariaren oneritziz, Munitibarren bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamabostean.

ONERITZIA ALKATEAK